



Donostiako lokal okupatu bati sua heman diote

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/11/2023

Hainbat migratzailek eta etxerik gabeko pertsonak egiten zuten lo bertan eta pertsona bat ospitalizatu behar izan dute.

Donostiako Egia auzoko Iruresoro kaleko lokal okupatu batean sute bat piztu da goizeko ordu txikietan, 03:00 aldera. Antza, hiru pertsona zeuden han eta larrialdi zerbitzuak hara joan dira sua itzaltzera. Lokalean zegoen pertsona bat ospitalera eraman behar izan dute, kea arnasteagatik. Era berean, ikerketaren iturriak sua nahita piztua izan dela adierazi dute.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/donostiako-lokal-okupatu-bati-sua